

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuak zakarrontzi inteligente batzuk sortzea du helburu. Honen bidez, kaleetako zikinkeria gutxitzea lortuko genuke, ingurumena zainduaz. Horrez gain, herriko komertzioetako ekonomia sustatzeko nahia dugu eta horretarako zenbait deskontu egitea erabaki dugu; komertzio hauen publizitatea eginaz. Gure helburu betetzeko sortuko genituzkeen zakarrontziek punta-puntako teknologia erabiliko dute, ideia berritzaileari ahalik eta zuku handiena atera diezaiogun.

Zakarrontzien funtzionamenduari dagokionez, hauek eguzki panelak dituzte hauen bitartez energia modu jasangarri batean eskuratzeko. Energia hori oso beharrezkoa da zakarrontziak tiketentz funtzionamendurako; zakarra bertara botatzean, trukean tiket batzuk eskuratuko dira zakarraren bolumen eta pisuaren arabera (sentsoreen bidez neurtuko dena). Ateratako tiketak QRak izango dituzte guk sortutako aplikazioan eskaneatu behar direnak lortutako deskontua zenbatekoa den ikusteko. Beraz, tiket hauek guztiz baliagarriak dira herriko komertziotan trukatzeko, izan ere, modu hontara, herriko komertziotan erostea sustatuko dugu tiketek izango dituzten deskontuei esker.

